



GASTEIZKO UDALAREN ETA EUSKALTZAINDIA- REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA	CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ Y EUS- KALTZAINDIA
BILDURIK	SE REUNEN
Alde batetik, Gorka Urtaran Agirre jauna, Vitoria-Gasteizko Udaleko alkate-lehendakaria,	De una parte, D. Gorka Urtaran Agirre, alcalde-presidente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
eta, bestetik, Andres Urrutia Badiola jauna, euskaltzainburua, Euskaltzaindiaren izenean eta hura ordeztuz,	De la otra parte, D. Andres Urrutia Badiola, presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.
Dokumentu hau sinatzeko ordezkagarritasun eta eskumen nahikoa aitortzen diote elkarri bi aldeek, eta	Ambas partes se reconocen recíprocamente con capacidad suficiente para suscribir el presente convenio, y
ADIERAZTEN DUTE:	DECLARAN:
1.- Euskal erakunde publikoek bere egin beharreko zereginak direla euskaldunon kultura ondareztat jo-tzen den euskarari iraunaraztea eta berori garatzea, baita ondare hori zaintzeko ardura, Estatutua tarteko, bere gain hartua duen erakundeari eustea ere. 2.- Vitoria-Gasteizko Udala arduratsu ageri dela, bere aginpidearen esparruan, euskararen sustapenari eta garapenari buruz, eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari buruz. 3.- Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Euskaltzaindiari aitortua diola, euskarari dagozkionetarako, erakunde aholku-emaile izaera. 4.- Euskaltzaindiak, 1976ko otsailaren 26ko Errege Dekretuaz onetsitako bere estatutuen arabera, euskararen iraupena eta sustapena zaintzea duela egin-kizun. Horretarako, euskal hiriburuetan ordezkari-tzak ezarriak ditu (15. art.). Hain zuzen ere, 1979az ge-roztik du ordezkari-tza Euskaltzaindiak Arabako hiribu-ruan. Hitzarmen hau Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulagun-tzen Plan Estrategikoan (2022-2024) jasota dago. 2022ko urtarrilaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zen Plana, eta, bere helburua da, zenbait proi-ektu eta ekimenei laguntza ematea, modu horretan, euskara sustatzen duten elkarteek eguneroko bizitzan euskararen erabilera susta dezaten.	1.- Que el mantenimiento y desarrollo del euske-ra, considerado como patrimonio cultural de los vascos, así como el sostenimiento de la insti-tución que estatutariamente tiene asignada la tu-tela de ese patrimonio, son tareas que deben ser asumidas por las instituciones públicas vascas. 2.- Que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz está comprometido, en el ámbito de sus competencias, en el fomento y desarrollo del euskera, y en la ga-rantía de los derechos lingüísticos de los ciudada-nos. 3.- Que el Estatuto de Autonomía del País Vasco asigna a la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia el papel de órgano consultivo en materia lingüística. 4.- Que Euskaltzaindia de acuerdo con sus Esta-tutos, aprobados por Real Decreto del 26 de fe-brero de 1976, tiene la misión de tutelar para la conservación y fomento de la lengua vasca. Con ese fin, tiene establecidas sus delegaciones en las capitales vascas (Art. 15). Concretamente, en la capital alavesa Euskaltzaindia tiene su de-legación desde 1979. El presente convenio de subvención nominativa se recoge en el vigente Plan Estratégico de Subvencio-nes del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2022-2024), aprobado por la Junta de Gobierno Local de 21 de enero de 2022. Los objetivos que se pretenden conseguir a través del mismo son brindar apoyo a iniciativas y proyec-tos que promuevan y favorezcan el uso del euskera en la vida cotidiana de la ciudadanía



Hartara, alderdi bien arteko lankidetzak egokia da euren helburuak lortzeko. Hitzarmena Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko ekainaren 9an egindako ohiko bilkuran onetsi da. Adierazitako guztia aintzat hartuta, bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, ondoko klausulen arabera:	Es, por lo tanto, adecuada la colaboración entre ambas partes, para cumplir sus respectivos objetivos El presente convenio ha sido aprobado en sesión ordinaria celebrada por la Junta de Gobierno Local el 9 de junio de 2023. En vista de lo expuesto anteriormente, ambas partes deciden suscribir el presente convenio, que se regule en base a las siguientes cláusulas:
--	--

KLAUSULAK	CLAUSULAS
Lehena.- Xedea. - Hitzarmen honek du xede Gasteizko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren zer-nolakoak finkatzea.	Primera.- Objeto. - El objeto de este convenio es establecer los términos de la colaboración entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Euskaltzaindia.
Bigarrena.- Alderdien konpromisoak. Vitoria-Gasteizko Udalaren aldetik: Udalak hirurogeita hiru mila (63.000 €) euroko zuzkidura egingo du. Euskaltzaindiaren aldetik: 1.- Hizkuntza aholkularitza. Herritarrei zerbitzu egokia eskaini ahal izateko udal zerbitzuetatik eskatzen zaion hizkuntza aholkularitza emango du Euskaltzaindiak. 2.- Vitoria-Gasteizko euskarari buruzko azterlanak. Euskarak Vitoria-Gasteizen bizi duen eta bizi izan duen egoera hobeto ezagutzen lagunduko duten lanak egingo ditu Euskaltzaindiak. Lan horien arteko lehena udalerriko toponimiaren azterketa da; gerora, berriz, bestelako azterlan historiko-linguistikoak bideratuko dira, kasuan kasu taxutzen diren proiektuen arabera. 2023. urtean Euskaltzaindiak Vitoria-Gasteiz hiriko toponimiaren ikerketarekin lotutako honako lanak burutuko ditu:	Segunda.- Compromisos de las partes. Por parte del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz : El Ayuntamiento aportará una dotación económica de sesenta y tres mil euros (63.000 €). Por parte de Euskaltzaindia: 1.- Asesoramiento lingüístico. Euskaltzaindia dará el asesoramiento lingüístico que para el adecuado servicio a los ciudadanos le sea solicitado por los diferentes servicios municipales. 2.- Estudios relacionados con el euskera en Vitoria-Gasteiz. Euskaltzaindia realizará trabajos que colaboren al mejor conocimiento del presente y del pasado de la lengua vasca en Vitoria-Gasteiz. Dichos trabajos comprenden la investigación toponímica del municipio, y otros estudios de tipo histórico-lingüístico, de acuerdo con los proyectos que se elaboren en cada caso. Durante el año 2023 Euskaltzaindia realizará los siguientes trabajos relacionados con el estudio de la toponimia de la ciudad de Vitoria-Gasteiz:



<i>Dibiña II</i> izeneko fasearekin bukatuko du Euskaltzaindiak 2023. urtean. Horretarako, urte honetan zehar honako lanak burutuko dira: • <i>Otoharren, Otogoi, Martioda eta Uribarri Dibiña</i> herrien lehen itzulia, hots, lekuko guztiak (edo ahalik eta gehien) toponimo jakin batekin identifikatuko dira, datuen analisi eta antolaketarako. • <i>Artatza, Gereña, Legarda, Mandoia, Otobarren, Otogoi, Martioda eta Uribarri Dibiña</i> herrietako toponimoen deskribapenak. • Inkestak eta ortofotoak paratu. • <i>Dibiña II</i> argitalpenean agertuko diren toponimo guztien behin-behineko idazketak prestatu. • Testu guztiak paratzea eta mapen prestaketa. 3.- Argitalpenak.- Arabari dagokionez gailen izanik agortuta dauden lanen berrargitalpena zein elkarlan honetatik sortzen diren beste lanen argitalpena sustatuko ditu Euskaltzaindiak. Ahal denean, argitalpen horiek euskarri informatikoan ere eskainiko dira Vitoria-Gasteizko Udalaren web-gunean. 4.- Ohiko jarduera.- Euskaltzaindiak, dela bere Zerbitzu Orokorretatik, dela Arabako ordezkarietatik bertatik, herritarrek eskatzen dioten informazioa eta laguntza eskaintzen jarraituko du. Orobat, kultur hedapenerako ekintzak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar burutatuko ditu Euskaltzaindiak lurralde honetan, dena delako instituzio eta erakundeekiko elkarlanean.	Euskaltzaindia finalizará durante el año 2023 con la fase denominada Dibiña II. Para ello, durante este año se realizarán los siguientes trabajos: • Primera vuelta correspondiente a los pueblos de <i>Otoharren, Otogoi, Martioda y Uribarri Dibiña</i>, que consistirá en la identificación de todos los testimonios (al menos la mayor parte) con un topónimo concreto para el análisis y ordenación de datos. • Descripción de los topónimos de los pueblos de <i>Artatza, Gereña, Legarda, Mandoia, Otobarren, Otogoi, Martioda y Uribarri Dibiña</i>. • Realización de encuestas y preparación de ortofotos. • Redacción provisional de los textos correspondientes a todos los topónimos que aparecerán en la publicación <i>Dibiña II</i>. • Elaboración de todos los textos y reparación de los mapas. 3.- Publicaciones. La Real Academia de la Lengua Vasca promoverá tanto la reedición de trabajos ya agotados y que tienen una especial relevancia para Álava, como la publicación de otros trabajos que surjan de esta colaboración. Cuando sea posible, se editarán también en versión informática en la página web del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. 4.- Actividad ordinaria.- Euskaltzaindia seguirá facilitando tanto desde sus Servicios Generales como desde la propia delegación de Álava, la información y la colaboración requerida por los ciudadanos. Asimismo, Euskaltzaindia impulsará en este territorio actividades de difusión cultural, cursos, conferencias, etc. en colaboración con las instituciones y entidades correspondientes.
Hirugarrena.- Hitzarmenaren zenbatekoa eta ordainketa. Gasteizko Udalak hirurogeita hiru mila euroko (63.000 €) zuzkidura ekonomikoa egingo du. Zenbateko hori bi ordainketetan egingo da, udalaren 2023/0171.3351.41803 zenbakidun partidaren kontura: dirulaguntzaren % 80a hitzarmen hau sinatu ondoren, eta gainerako % 20a dirulaguntza behar bezala justifikatu ondoren. Nolanahi ere, Euskara Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeko fasean, ziurtatuko du onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa bat datorrela azkenean	Tercera.- Cuantía del convenio y abono de la misma. El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz aportará una dotación económica de sesenta y tres mil euros (63.000 €), cuyo abono se efectuará en dos pagos con cargo a la partida 2023/0171.3351.41803: 80 % de la subvención tras la firma del presente convenio y el resto, 20 %, una vez justificada correctamente la subvención. En cualquier caso, el Servicio de Euskera, en la fase de comprobación de la justificación, verificará que el importe del presupuesto presentado por el beneficiario coincide con la cantidad finalmente ejecutada y



gauzatu eta justifikatutako zenbatekoarekin. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da. Hori guztia ezertan eragotzi gabe behar ez bezala justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 37.1 b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan. Laugarrena: Beste dirulaguntza batzuekin bateragarria izatea. Emandako dirulaguntza bateragarri izango da ekimen bera gauzatzeko eskuratzen diren beste batzuekin. Hala ere, helburu berei erantzuteko beste dirulaguntzarik jasoz gero, emandako dirulaguntza egokitzerik izango da, beharrezko denaz gaindiko finantzaketarik izan ez dadin. Bosgarrena: Hitzarmenaren iraunaldia. 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra izango ditu ondorioak hitzarmen honek. Seigarrena: Hitzarmenaren jarraipena. Jarraipen-batzorde bat eratuko da, hitzarmen honen jarraipena egiteko, Udalaren lantalde teknikoko bi kidek eta entitate sinatzailearen beste bi kidek osatua. Batzordeak zinegotzi arduraduna eta egoki iritzitako alde politikoaren ordezkapen bat gonbidatuko du hitzarmenaren hasiera eta amaierako bileretara, onetsitako proiektuaren aurkezpenarekin eta azalpen txostena entregatzearekin bat, hurrenez hurren, eta, behar izatera, aparteko behar beste bilera ere deitu ahalko da. Batzordeak programa onik garatzeko eta haren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurri guztiak proposatu ahalko ditu.	justificada. Si la cantidad finalmente ejecutada es menor, se reducirá el importe de la subvención inicialmente concedida. Todo ello sin perjuicio de tener que reintegrar (total o parcialmente) las cantidades indebidamente justificadas, más los correspondientes intereses de demora, en los supuestos establecidos en el artículo 37.1 b) y c) de la L.G.S. Cuarta: Compatibilidad con otras subvenciones. La subvención concedida es compatible con otras que puedan percibirse para la realización de la misma iniciativa. No obstante, la percepción de otra u otras subvenciones para el mismo fin podrá dar lugar al reajuste de la subvención concedida, con el objeto de evitar la sobrefinanciación. Quinta: Vigencia del Convenio. El presente convenio surtirá sus efectos entre el 1 de enero de 2023 y el 31 de diciembre de 2023. Sexta: Seguimiento del convenio. Quedará constituida una Comisión de Seguimiento, a los efectos de revisar el desarrollo general del presente convenio, compuesta por dos personas del equipo técnico municipal y otras dos representantes de la entidad firmante. La Comisión invitará a la Concejalía responsable y la representación política que estime oportuna a las reuniones de inicio y final del convenio, coincidiendo con la presentación del proyecto aprobado y la entrega de la memoria del mismo, pudiéndose convocar cualquier otra reunión de carácter extraordinario en caso de necesidad. La Comisión podrá proponer cuantas medidas considere oportunas para el buen desarrollo del programa y la mejora de su gestión.
--	---



Zazpigarrena.- Proiektuaren azalpen-txostena eta gastuen justifikazioa. a) Entitate onuradunak jasotako dirulaguntza justifikatu beharko du 2024ko martxoaren 31 baino lehen. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein gasturen kostua egozten zaion Udalak emandako dirulaguntzari. Dokumentazioa aurkezterakoan oinarri hauetan agiriak normalizatzeko emandako irizpideak hartu beharko dira kontuan. b) <u>Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:</u> b.1. <u>Egindako proiektuaren azalpen-txostena</u>, lortutako emaitzen balioespena barne. Horretarako, ondorengoak erantsiko dira: Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana. Euskararen erabilerari buruzko jarraipen fitxa. b.2. <u>Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa</u>, oinarri hauei erantsitako justifikazio-kontu arruntaren ereduaren arabera. Memoriak eranskin hauek izan behar ditu ko ditu: 1. atala: Funtz propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako justifikazioa. Proiektu edo jarduera hainbat entitate publiko edo pribatu finantzatzeko badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzeko bada bete beharko da eranskin hau. 2. atala: Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagiriaren zerrenda. Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da eranskin hau. Gastu motak zerrendatu eta alderdi hauek zehaztu beharko dira, bertan adierazten den moduan: hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa. Jatorrizko fakturak eta ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko zaizkio. Eskudirutan ordaintzekotan, lege ezarritako muga-pena aintzat hartu beharko da webgunehonetan kontsulta daiteke: www.agenciatributaria.es.	Séptima.- Memoria explicativa y justificación del gasto. a) La entidad beneficiaria deberá justificar la subvención concedida antes del 31 de marzo de 2024. Según establece el artículo 30 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se deberá justificar el 100 % del presupuesto de la actividad subvencionada y no sólo la cantidad concedida por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, especificando los gastos cuyo coste se imputa a la subvención concedida por el Ayuntamiento. En la presentación de esta documentación han de tenerse en cuenta los criterios de normalización de documentos que se detallan a continuación. b) <u>La cuenta justificativa ordinaria deberá contener:</u> b.1. <u>Memoria explicativa del proyecto realizado</u> con indicación de los resultados obtenidos. Para ello acompañará: Ejemplar de los estudios, programas, publicaciones, carteles anunciadores y cuanta documentación gráfica y escrita haya sido elaborada en la actividad objeto de la subvención. Ficha de seguimiento de utilización del euskera. b.2 <u>Memoria económica justificativa del coste de las actividades</u>, según modelo de cuenta justificativa ordinaria, que comprende los siguientes Anexos: Apartado 1: Justificación de fondos propios o recibidos de otras entidades. Se cumplimentará este Anexo en el caso de que el proyecto o actividad sea financiada por varios entes públicos o privados, y/o con recursos propios de la entidad beneficiaria. Apartado 2: Relación de justificantes de gasto relativos al proyecto subvencionado. Se cumplimentará este anexo para justificar los gastos del proyecto que se imputan a la subvención municipal, relacionando los tipos de gastos con identificación del acreedor, concepto, fecha e importe tal y como se recoge en el anexo. Al mismo se adjuntarán las facturas originales y documentos que acrediten el pago de las mismas. Para la realización de los pagos en metálico habrá de tenerse en cuenta la limitación legal establecida, que puede consultarse en la siguiente página web: www.agenciatributaria.es Únicamente se admitirán recibís cuando las activi-
--	--



Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso izanaren agiriak. Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean. Jasotze-agiriak datu hauek jaso behar ditu: - Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea. - Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa. - PFEZaren atxikipena dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da. - Tokia, data eta jasotzailearen sinadura. 3. atala: proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea. 4. atala: langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak. Dirulaguntza jaso duen proiektuko langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko bete beharko da eranskin hau, eta entitate edo pertsona onuradunaren kontura izan diren nominak eta TCak (gaur egungo RNT eta RLC agiriak) erantsiko dira. 5. atala: Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa. Bidaia, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatzeko beteko da eranskin hau. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsi behar dira erabilitako garraiobidearen txartelak, tiketak, fakturak... , zenbatekoa zehazteko oinarri baitira. Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauetaz: Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea lortze bidean sortuak direla, eta Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla. Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela. (dagokionean) Onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, oro har onartzen diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz, eta kontuan izanik horiei egotzitakoa ezin izango dela inolaz ere dirulaguntzaren % 8a baino gehiago izan. - Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adieraz-	dades realizadas no se puedan acreditar por otro medio. En todo caso, la persona que firme el recibí no ha de tener la condición de empresario o profesional dado que, si así fuera, estaría obligada a expedir y entregar la correspondiente factura. El recibí deberá contener los siguientes datos: - Nombre, apellidos, NIF y domicilio de la persona expedidora y destinataria - Descripción detallada de la operación o servicio realizado y su precio total - Retención del IRPF (se deberá acompañar ingreso de dicha retención en la Agencia Tributaria correspondiente) - Lugar, fecha y firma de la persona o entidad receptora. Apartado 3: Balance de ingresos y gastos del proyecto/actividad. Apartado 4: Gastos de personal y seguridad social. Se cumplimentará este anexo para justificar los gastos de personal y seguridad social del proyecto subvencionado, adjuntando las nóminas y TCs (actuales RNT y RLC) a cargo de la entidad o persona beneficiaria. Apartado 5: Liquidación individualizada de gastos, dietas y viajes. Se cumplimentará este anexo para justificar los gastos de viaje y dietas, desplazamientos, manutención etc. Al mismo hay que adjuntar los documentos comerciales justificativos del gasto (billetes del medio de transporte utilizado, tickets, facturas...) que son la base para determinar la cuantía. Declaración responsable, que contiene: Declaración de que las facturas y recibos se generaron como consecuencia de la ejecución del objetivo o fin previsto y han sido financiadas por la aportación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Declaración de no contar con personal asalariado a cargo para el desarrollo del proyecto (cuando proceda). - Declaración de costes indirectos que la persona o entidad beneficiaria imputa a la actividad subvencionada en la parte que corresponda de acuerdo con los principios y normas de contabi-
---	---



pena, non diruz lagundutako jarduera finantza- tzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru- laguntzak zedarrituko diren, zenbatekoa eta jato- rria zehaztuta, edo, halakorik badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azal- tzeko adierazpena. c) Kontratu txikien zenbatekoa gaintitu arren diru- laguntza jaso dezaketen gastuak. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak obra- kontratuen kasuan 39.999 euroko (BEZik gabe) eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuenean 14.999 euro- koa (BEZik gabe), pertsona edo entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaini- tza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasu- nak emateko konpromisoa hartu aurretik, eta hala egin duela egiaztatu beharko du, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo dirulaguntza eman aurretik gastua eginga badago. d) Emandako dirulaguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa. Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagoz- kien interesak itzuli beharra ekar lezake berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artiku- luan xedatutakoaren ildotik. Zortzigarrena.- Diruz lagunduko ez diren gastuak. Hitzarmen honen bidez ez dira lagunduko honelako gastuak: - Ondasun inbentariagarriak eraiki, birgaitu edo hobetzearen ondorio diren gastuei dagozkienetan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.4 eta 31.5 artikuluan bildutako arauak jarraiki jokatuko da. - Zeharkako zergak, BEZ kasu, ez dira diruz lagun- duko, gerora berreskuratzeko edo konpentsatzeko aukera dagoenean. - Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezinbeste- koak ez diren gastuak (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua). Bederatzigarrena.- Azpikontratazioa.	lidad generalmente admitidos, sin que la impu- tación efectiva pueda ser superior al 8 %. - Declaración responsable de la persona o enti- dad beneficiaria en la que detalle otras subven- ciones o ingresos que hayan financiado la acti- vidad subvencionada con indicación de importe y procedencia o, en su caso, declaración indi- cando que no ha solicitado ni es perceptora de otras subvenciones para el proyecto. c) Gastos subvencionables que superen la cuan- tía de un contrato menor. Cuando el importe del gasto subvencionable supere en el contrato de obras la cuantía de 39.999 euros (IVA excluido) y en suministros y servicios la cuantía de 14.999 euros (IVA excluido), la persona o entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofer- tas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la pre- stación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subven- ción. d) Falta de justificación o justificación insuficien- te de la subvención concedida. El incumplimiento de la obligación de justificar o la justificación insuficiente podrá conllevar la obligación de reintegrar las cantidades percibidas más el inte- rés correspondiente, en los términos establecidos en el artículo 37.1 de la Ley General de Subvenciones. Octava.- Gastos no comprendidos. No se considerarán gastos subvencionables en el presente convenio: - Los gastos que supongan la adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables se ajustará a las reglas establecidas en el artículo 31.4 y 31.5 de la Ley General de Subvenciones - Los impuestos indirectos, como por ejemplo el IVA, no serán subvencionables cuando sean susceptibles de recuperación o compensación. - Los gastos no estrictamente necesarios para la realización de la actividad subvencionada (art. 31 de la Ley General de Subvenciones). Novena.- Subcontratación.
---	---



Hauxe joko da onuradunaren azpikontratatzotzat: beste norbaitekin hitzartzea hark egin dezala dirulaguntzaren xede den jarduera, osorik nahiz parte bat. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira diruz lagundutako jarduera berak egiteko onuradunak egin beharreko gastuak. Gehienez diruz lagundutako jardueraren % 75era arte azpikontratatu ahal izango du onuradunak, zatika, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 29. artikuluan eta hurrengoetan eta Araudiaren 68. artikuluan xedatutakoaren ildotik. Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egin beharko da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 29.7 d) artikuluari jarraiki. Onuradunaren edo erakunde laguntzailearen aurrean baino ez dute erantzun beharko kontratistek, haiek izango baitute diruz lagundutako jarduera zertzearen erantzukizun osoa administrazioaren aurrean. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duen ekintzarik haren edukiari balio erantsirik ez badakarkio. Halaber, 29.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, entitate onuradunak berekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahalko du jarduera gauzatzea, osorik edo zati batean, baldin eta aurretiaz organo emailearen aurrean Azpikontratatzeko baimenaren eskabidea (III. eranskina) aurkezten badu —eta baimena lortu—, eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoak ez badu lotura duen entitateak egindako kostua gainditzen. Kostua egiaztapenean ziurtatuko da, onuradunaren gastuak ziurtatzeko ezarritako baldintza beretan. Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 eta 16. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko eta eskatzailearekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatze baimena emateko eskumena.	Se considera que existe subcontratación cuando el beneficiario concierta con terceros la realización total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. No tendrán tal consideración los gastos que tenga que realizar el beneficiario para la realización por sí mismo de la actividad subvencionada. El beneficiario podrá subcontratar parcialmente hasta el 75 % de la actividad subvencionada en los términos señalados en el artículo 29 y siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y art. 68 del Reglamento. La contratación deberá hacerse de acuerdo con las condiciones normales del mercado, de conformidad con el art. 29.7 d) de la Ley General de Subvenciones. Los contratistas quedarán obligados sólo ante el beneficiario, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de la actividad subvencionada frente a la Administración. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma. Asimismo, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29.7, la entidad beneficiaria podrá concertar la ejecución parcial o total con personas o entidades vinculadas, siempre que presente la Solicitud de autorización para subcontratación (Anexo III), que obtenga la autorización del órgano concedente y que el importe subvencionable no exceda del coste incurrido por la entidad vinculada. La acreditación del coste se realizará en la justificación en los mismos términos establecidos para la acreditación de los gastos del beneficiario. En el marco de lo establecido en los artículos 5.1 y 16 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, se delega la competencia para autorizar la subcontratación de las actividades subvencionadas y la ejecución con personas o entidades vinculadas en el Concejal-Delegado del Departamento de Alcaldía y Relaciones Institucionales
Hamargarrena.- Dirulaguntza galtzea eta itzultzea. Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, beharrezko den dosierra izapidetu ondoren, kasu hauetan: a) eskabideko datuak edo eskatutako agiriak faltsutu badira; b) emandako dirulaguntza hitzartutako helburuak eta ekintzak egiteko erabili ez bada; c) ezarritako betebeharrak bete ez badira; d) Dirulaguntzen udal ordenantzaren 20. artikuluan, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 36. artikuluan eta berorren araudiko —887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa— ildo berekoetan adierazten diren gainerako egoeretan. Era berean, pertsona edo	Décima.- Pérdida de la subvención y reintegro. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, previa tramitación del oportuno expediente, en los siguientes supuestos: a) si se hubiesen falseado los datos de la solicitud y/o de la documentación exigida; b) si no se hubiese destinado la subvención a los fines y actividades para los que fue concedida; c) si se hubieran incumplido las obligaciones establecidas; d) en los demás supuestos establecidos en el artículo 20 de la ordenanza municipal de subvenciones, artículo 36 de la ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y concordantes del Reglamento de la L.G.S. —R.D. 887/2006, de 21 de



erakunde onuradunek itzuli egin beharko dute diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetiko soberakina. Jasotako diru-kopuruak itzularazteko prozedura Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen ordenantzan, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta berorren araudian xedatutakora egokituko da.	julio—. Así mismo las personas o entidades beneficiarias deberán proceder al reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada. El procedimiento de reintegro para la devolución de las cantidades percibidas se ajustará a lo establecido en la Ordenanza Municipal de Subvenciones del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en la ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en su Reglamento de desarrollo.
Hamaikagarrena.- Onuradunaren betebeharrak. – Finantzatutako jarduera burutzea, eta jasotako funtsak horretarako baliatzea, dirulaguntza emateko hitzarmenean adierazi bezala. – Proiektuak gauzatzean edozein aldaketa egiten delarik, Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuari jakinaraztea. – Helburu berarekin beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu, nazional nahiz nazioartekoren batek emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso z gero, Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuari jakinaraztea, baita zertarako baliatu diren ere. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri. – Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuaren aurrean egiaztatzea —hitzarmen honetan jasotako diru-kopurua ordaindu aurretik— zerga-betebeharrak bete dituela eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu, eta orobat bete dituela udal ogasunarekiko betebeharrak. – Jasotako diru-kopuruak itzultzea —baldin eta hitzarmenaren xede diren proiektu edo jarduerak betetzen ez baditu edo ezarritako baldintzetan betetzerik ez badauka—, edota diruz lagundutako kostutik gain eskuratutako kopurua. – Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egite aldera, eskatutako agiri guztiak eman behar zaizkio Udalari. – Agiriak egiaztatzeko ekintzen mende jartzea, baita Gasteizko Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitakoen mende ere. – Dirulaguntza justifikatzea, hitzarmen honen sei garren eta zazpigarren klausuletan ezarritakoaren ildotik.	Undécima.- Obligaciones de la entidad beneficiaria. – Realizar la actividad financiada y aplicar a la misma los fondos percibidos en los términos del convenio de concesión de la subvención. – Comunicar al Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz cualquier modificación en la realización de los proyectos. – Comunicar al Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, y la aplicación dada a los anteriores. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca. – Acreditar ante el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que se haya al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la seguridad social, así como con sus obligaciones con la hacienda municipal, con anterioridad al abono del importe objeto de este convenio. – Proceder al reintegro de las cantidades percibidas, en los supuestos de, incumplimiento o imposibilidad de cumplimiento de los proyectos o actividades objeto del convenio en las condiciones establecidas, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada. – Dar cuenta al Ayuntamiento de los documentos que se le soliciten como seguimiento del proyecto subvencionado. – Someterse a las actuaciones de comprobación de documentación y a las de control financiero que corresponde a la Intervención General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y a los previstos en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y otros órganos que tengan atribuida dicha competencia. Llevar a cabo la justificación de la subvención de acuerdo a lo establecido en las cláusulas sexta y séptima del presente convenio.



Hamabigarrena: Publizitatea eta zabalkundea Hitzarmen honen xedearekin loturiko komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, baita edozein ekitaldi publiko edo pribatu —aurkezpenak, itxi-era-ekitaldiak eta antzekoak— antolatzerakoan ere, Gasteizko Udalaren lankidetzara adierazi beharko da. Leku publiko eta ikusgarri batean “Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko Udala” erakunde-marka eta “VITORIA-GASTEIZ!” hiri-marka jartzea, ekitaldiaren babesle gisa, bai ekitaldiei lotuta argitaratzen den publizitatean eta dokumentazioan. Horretarako, Udalaren Proiektuen Zerbitzuak marken bertsio eta formatu grafiko desberdinak bidaliko ditu posta elektronikoz (imagencorporativa@vitoria-gasteiz.org), bai eta horiek aplikatzeko araudia eta jarraibide orokorrak ere; orobat, berriazko onespina emango die ekintzetan edo erabiltako publizitate euskarrietan markaren agerraldi guztiei. Antolatzen diren komunikazio-jarduerak guztiak —aurkezpenak, prentsurrekoak...—, bai eta hitzarmen honen xede den edukiaren eta jardueren inguruko publizitate-euskarriak eta material grafiko guztia ere sinatzen duten alde biek adostuak izan beharko dute aldeaz aurretik, edukiari zein itxurari dagokienetan. Jarduera horien zabaltze-lanak liburuxken, kartelen edo, oro har, jendeak eskura dezakeen beste edozein euskarriaren bidez egiten direnean, Dirulaguntzei buruzko 2005eko ekainaren 17ko Udal Ordenantzan (ALHAO, 2006ko urtarrilaren 13koa) jasotzen den bezala egingo da.	Decimosegunda: publicidad y difusión En todas las acciones de comunicación, publicidad y propaganda así como la organización de cualquier acto público o privado, presentaciones, clausuras y similares que guarden relación con el objeto de este convenio, deberá reflejarse la colaboración del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Se dará a conocer en lugar público y visible la marca institucional “Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko Udala” y de la marca “VITORIA-GASTEIZ!” de Ciudad, como entidad patrocinadora del proyecto, tanto en la publicidad, como en la documentación que se edite. A tales efectos el Servicio municipal de Proyectos, facilitará por correo electrónico (imagencorporativa@vitoria-gasteiz.org), las marcas en sus diferentes versiones y formatos gráficos, así como la normativa con las consideraciones generales a tener en cuenta en su aplicación y revisará y dará conformidad expresa en todas las apariciones de marca en cualquiera de las acciones o soportes publicitarios utilizados. Todos los actos comunicativos que se organicen (presentaciones, ruedas de prensa,...), así como los soportes publicitarios y material gráfico que se edite en relación con el contenido y actividades objeto de este convenio, deberán ser previamente consensuados entre las dos partes, tanto en lo que respeta a su forma como a su contenido. La difusión de estas actividades mediante folletos, carteles o cualquier otro soporte al que tenga acceso el público en general, se hará, tal y como se recoge en la Ordenanza Municipal de Subvenciones del 17 de junio de 2005 (BOTH de 13 de enero de 2006).
Hamahirugarrena.- Hizkuntza-normalizazioaren printzipioen aplikazioa Hitzarmena egikaritzean aintzat hartuko da euskararen eta gaztelaniaren, hizkuntza bien, koofizialtasuna eta jarduerak elebitasun irizpideen eta herritarren hizkuntza eskubideen menpe izango dira, hala zehazten baita honakoetan: 10/1982 Legea; Autonomia Estatutua; 86/1997 Dekretua; 179/2019 Dekretua, Euskadiko Toki-erakundeetan Hizkuntza Ofizialen Erabilera Instituzionala eta Administrazioa Normalizatzeari buruzkoa eta, Gasteizko Udalean indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana..	Decimotercera.- Aplicación de los principios de normalización lingüística En la ejecución del convenio se tendrá en cuenta la cooficialidad y actividades del euskera y del castellano, de ambas lenguas, de los bilingüismos y criterios y de los derechos lingüísticos de la ciudadanía, tal y como establece la Ley 10/1982, el Estatuto de Autonomía, el Decreto 86/1997, el Decreto 179/2019, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi y el Plan de Normalización del Uso del Euskera vigente en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.
Hamalagarrena.- Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun-printzipioen aplikazioa Hitzarmena sinatzen duen erakundeak, generoberdintasunaren arloan, bete behar ditu honakoetan ezarritako xedapenak: Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoa eta	Decimocuarta.- Aplicación de los principios de Igualdad de Género La entidad convenida ha de cumplir, en materia de igualdad de género, las disposiciones establecidas en la Ley Orgánica 3/2007 para la Igualdad efectiva entre Mujeres y Hombres, y en la Ley 4/2005 para la



Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxista desagerrarazteko 4/2005 Legea. Era berean, Genero-nortasunagatiko diskriminaziorik ezari eta Transexualen eskubideak aitortzeari buruzko 14/2012 Legea bete behar da, bai eta Yogyakartaren printzipioak ere: sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagokienez, Giza Eskubideen nazioarteko legeria aplikatzeari buruzko printzipioak. Hala, giza eskubideen arloko legeria eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, hitzartutako erakundearen proiektua bat etorriko da Gasteizko Udalak bultzatzen dituen Genero Berdintasuneko politikekin. Horregatik, konpromiso hauek hartzen ditu: - Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzea, herritarren egoera, baldintza, jomuga eta beharri-zen desberdinak sistematikoki kontuan hartuta, eta generoak, gizarte-klaseak, kultur-jatorria egoera administratiboa, adina, edo aniztasun funtzionalak eragindako desberdintasunak ezabatzeko helburu eta jardura espezifikoak txertatuta; baita ekintza positiboa ere. - Generoa kontuan hartzerakoan, ez da ziurtzat jo behar pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualek direla —cisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen tratamenduan, ihes egitea patologizaziotik, biktimismoetik eta pinkwashingetik. - Sexua/generoa aldagaia sistematikoki sartzea estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketan — Emakumea/Gizona/Ez bitarra edo, hala badagokio, erakunde hitzartuak egokiagotzat jotzen duen beste moduren bat—. - Hizkuntza eta irudiak modu ez-sexista eta inklusiboan erabiltzea, pertsonak edo pertsona-taldeak modu bidezkoan irudikatzeak eta generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren araberako rolak eta estereotipoak ez indartzeko..	Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres del País Vasco. Asimismo, debe ajustarse a la Ley 14/2012, de No Discriminación por Motivos de Identidad de Género y de Reconocimiento de los Derechos de las Personas Transexuales, y a los Principios de Yogyakarta: Principios sobre la aplicación de la legislación internacional de Derechos Humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género. De esta manera, además de respetar esta legislación y documentación en materia de derechos humanos, el proyecto de la entidad convenida queda alineado con las políticas de Igualdad de Género que impulsa el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Por ello se compromete a : - Integrar la perspectiva de género e interseccional, considerando sistemáticamente las diferentes situaciones y necesidades de la población; incorporando objetivos y actuaciones específicas dirigidas a evidenciar o paliar las desigualdades en función del género, la clase social, el origen cultural, la situación administrativa, la edad o la diversidad funcional; y previendo acciones positivas. - A la hora de considerar el género, no dar por hecho que todas las personas son mujeres u hombres heterosexuales —cisheteronormatividad— ni que todas las familias son de tipo nuclear. En el tratamiento de la orientación sexual y la identidad de género, huir de la patologización, el victimismo y el pinkwashing. - Incluir sistemáticamente la variable sexo/género —mujer/hombre/no binario u otra forma que la entidad considere, en su caso, más adecuada— en las estadísticas, las encuestas y la recogida de datos que lleven a cabo. - Utilizar el lenguaje y las imágenes de manera no sexista e inclusiva, con el objetivo de representar a las personas o grupos de personas de una manera justa y que no refuerce los roles y los estereotipos en función del género o de cualquier otra fuente de desigualdad estructural.
Hamabosgarrena.- Datu pertsonalak babestea Erakunde onuradunak adierazten du betetzen dituela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak. Gainera, konpromisoa hartzen du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege	Decimoquinta.- Protección de datos de carácter personal La entidad que suscribe este Convenio manifiesta cumplir con la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal y en particular con las medidas de seguridad correspondientes a sus ficheros. Además, se compromete a aplicar a los datos, las medidas de seguridad previstas en la ley orgánica



Organikoan aurreikusitako segurtasun-neurriak datuei aplikatzeko eta datu horie-tako bat ere ez lagatzeko.	3/2018 de 5 de diciembre, de protección de datos de carácter personal, y a no realizar cesión alguna de los referidos datos.
Hamaseigarrena.- Bertan behera uzteko arrazoiak Hitzarmena deusezteko arrazoa da bertan agertzen diren klausulak edota hitzarmenaren izaerarekin zeri-kusirik duen beste edozein klausula ez betetzea.	Decimosexta.- Causas de resolución Son causas de resolución para las partes firmantes del presente convenio, el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo así como de cualquier otra derivada de su específica naturaleza.
Hamazazpigarrena.- Hitzarmenaren izaera eta interpretatzea. Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, eta administrazio-zuzenbidearen mende egongo da, interpreta-tzeari eta garatzeari dagokionez. Hitzarmen honen inguruko edozein kontu dela eta —interpretazioa, aldaketa, eraginak, bertan behera uz-tea— auzia sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoa izango da. Hitzarmen honetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei eta Laguntzei buruzko Udal Ordenantza hartuko da kontuan, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege De-kretuaren bitartez onetsia—, eta aplikagarri diren gai-nerako araudietan xedatutakoa.	Decimoséptima.- Naturaleza e interpretación. El presente convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el derecho administrativo. Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos o resolución del mismo serán de conocimiento de la jurisdicción con-tencioso-administrativa. Será de aplicación en todo aquello que no hubiera sido contemplado en las presentes estipulaciones, la Ordenanza municipal de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, así como la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subven-ciones y su Reglamento, aprobado por RD 887/2006, de 21 de julio, así como demás normativa concordante y de pertinente aplicación.
Azaldutako guztiarekin ados daudela eta onartzen dutela erakuste aldera, agiri hau izenpetu dute esku hartzen duten bi aldeek. Gasteizen, 2023ko ekainaren 9an	En prueba de conformidad y aceptación de cuanto queda expresado, las partes intervinientes firman el presente convenio. En Vitoria-Gasteiz, a 9 de junio de 2023

Vitoria-Gasteizko Udalaren izenean
Por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Por Euskaltzaindia
Euskaltzaindiaren izenean

Gorka Urtaran Agirre

Andres Urrutia Badiola